


FUNTSEKO BALIABIDEAK

Gure enpresa aurrera ateratzeko baliabide ezberdinak beharko ditugu. Gure enpresa ereduak funtziona dezan, baliabide mota ezberdinak kontuan hartu beharko ditugu. Funtsezko baliabideak garrantzitsuak dira, balio-proposamenaren eskaintza ongi garatu ahal izateko, bezeroengana egoki iristeko,



haiekin harremanak izateko eta diru-sarrerak sortzeko. Hauek dira behar ditugun lau baliabide motak lau dira: Fisikoak (non erabiliko ditugun erreminta, ekipo eta lantokiak biltzen ditu besteak beste), intelektualak (non gure taldea osatzen dugun kideek ditugun abileziak eta gaitasunak sartzen dira), giza baliabideak (gure enpresa barruan dagoen jerarkia da,) eta azkenik, finantza baliabideak (zeintzuk gure proiektua finantziatzeko beharko dugun dirua, eta nondik aterako dugun biltzen du).

Gure enpresak baliabide intelektualei dagokienez, baditugu bi taldekide programazioan adituak direnak. Bi kide hauek gure aplikazio programatu eta bideratuko dute. Beste enpresa kideak taldea koordinatzeko abilezia, salmentarako abilezia eta antolaketako abilezia dute. Gure enpresako kideekin nahiko izango dugu, guk programatuko dugu gure aplikazioa eta guk bideratuko digu aplikazioaren sorrera.



Gure enpresan taldekide guztiak izango gara zuzendari exekutiboak, hau da, denek pisu bera izango dugu enpresarekin zerikusia duten erabakiak hartzeko unean. Baina gure produktua gauzatzeko momentuan, taldekide bakoitzak bere funtzioa izango du bere abilezien arabera, lana aurrera eraman ahal izateko. Kasu honetan, bi taldetan banatuko gea, alde batetik produktuaren diseinuaz arduratuko direnak, eta bestetik programazioaz arduratuko direnak. Horretarako, Aiert izango da bi taldeak koordinatuko dituen taldekideak lan egokia egitera bideratzen dituelako. Diseinuaren taldean Ibane eta Naia egongo dira, Naia diseinu burua izanda, eta hortaz gure produktuaren diseinuan erabakiak hartzerako unean, pisu handiena izango duena. Eta programazioaren taldean berriz, Alex, Aiert eta Urtzi egongo dira, eta Urtzi izango da kasu honetan programazio burua, hau da, bere lana izango da Aiertek eta Alexek bere lana modu egokian egitea eta modu koordinatu

batean programatzea lan hau egiten esperientzia dutelako, urte askoz egon dira bere kabuz programatzen. Ibane, diseinu taldearen parte izatea gain, marketing zuzendaria ere bada, eta horretaz produktuak gure enpresak eman nahi duen itxura, arrakastatsu izateko beharko dituen ezaugarriak... betetzen dituela ziurtatu beharko du, eta hortaz taldeko beste kide guztiek kontuan hartu beharko dugu berak emandako aholku eta aginduak. Horretaz gain berak kontrolatuko ditu gure taldeko sare sozialak.

Erabiliko ditugun baliabide fisikoak, ordenagailua, garajea eta mugikorra izango dira. Ordenagailuarekin gure enpresaren aplikazio sortuko dugu, horretarako, leku egonkor bat beharko dugu, izan ere, denbora asko pasa beharko dugu gure aplikazioa programatzen, eta aukeratu dugun lekua taldekide baten garajea izan da, gastu gutxiago izateko. Horretaz gain, mugikorra ere erabiliko dugu, sortutako aplikazioak egoki funtzionatzen duela frogatzeko.

Gure enpresak dirua ekoizten hasi baino lehen sortuko ditugun gastuak konpentsatzeko eta gure proiektua finantzatzeko erabiliko ditugun finantza baliabideak gure aurrezkiak izango dira, izan ere, ez dugu espero gastu handia izatea eta aurreztu dugunarekin balio izatea aurreikusten dugu, nahiz eta kostuak analizatzean ikusi dugun lehen hilean galerak izan ditzakegula.

Ondorioei dagokionez, baliabide intelektual eta giza baliabideei dagokionez, gure taldea oso orekatua dela uste dugu, izan ere baditugu programazioan adituak diren taldekide batzuk, hau da, egin behar dugunerako behar ditugun baliabide intelektualak dituztenak, baita

liderazgo eta enpresa administrazioan onak direnak ere. Gainera uste dugu, proiektua aurrera ateratzeko nahikoa giza baliabide ditugula, eta taldeko kideekin bakarrik nahiko izango dela proiektua aurrera ateratzeko.